

## **INTERBIAKEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEAREN KARGUA**

Mikel Iriondo BIlbao Amorebieta-Etxanon jaio zen, 1976an.

Ingeniaritza Elektronikoan lizentziatua (Automatika saila).

2003ko uztaila 2009ko azaroa. BIDE LAN S.A, enpresa pribatuaren kobrantzak kudeatzeko arloaren arduraduna. Enpresa horrek AP8 eta AP1 autobideak Gipuzkoan eta Araban ustiatzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko lanak egiteko kontratuen adjudikazioa du.

Eginkizun nagusi hauek izan ditu:

Autobideetako 140 kilometro baino gehiago eta kobrantzarako 19 estazio kudeatzea.

120 langile daude plantillan eta urtean 11 milio euroko aurrekontua du.

2009ko azaroa — 2011ko uztaila. Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Saileko Errepideen zuzendari nagusia

2011ko uztaila — 2015eko uztaila. Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Saileko Bide Azpiegituren zuzendari nagusia, aurreko agintaldian zeuden Errepideen Zuzendaritza Nagusiak eta Herri Lanen Zuzendaritza Nagusiak bat egin ondoren.

2015ko uztailatik — Interbiakeko Zuzendari Kudeatzailea

Euskaraz (EGA), gaztelaniaz eta ingelesez (First Certificate) hitz egin eta idazten du.